





inmersiones 09



aurkibidea

índice

Sarrera	— 6 —	Introducción
Proiektua	— 28 —	Proyecto
Tailerra	— 44 —	Taller
45 Dosier	— 58 —	45 Dossieres
30 Proiektu	— 64 —	30 Proyectos
Aire Mezuak	— 258 —	Mensajes de Aire
Kultur Proiektu Intependenteak	— 268 —	Proyectos Culturales Independientes



*“Bada ordua
entzuleek
parte har
dezaten!”*

(Joe Strummer, kontzertu batean, 1976. urtean)

“Gizon bat, artista bat” Joseph Beuys

Biziki poztu nintzen Izaskun 2009.eko ekitaldia komisariatzeko arduraduna izango zela jakin nuenean, bera izan zelako abenduko goiz hotz hartan. Amarike aretoan, foro paregabe bilakatu zen Inmertsioak'08 ekitaldian, zeinek bere proiektuak eta deliberoak aurkezten ikusi nituen artistetako bat. Berehalakoan otu zitzaidan Amarike proiektua berrelikatzen zela, urrats

bat aurrera egin eta hori berori baliatzen zuela hurrengo urratsa egiteko, eta gustatu zitzaidan. Pentsatu nuen hasiera-hasieratik hartuta geneuzkan ardura eta nekeek, azkenik, kalte-ordaina zekartela eta lan baliagarria egiten ari ginela.

Pentsatu nuen, halaber, ordua zela dagoeneko, ordura arte txintik esan barik entzuteaz konformatu beharra izan zutenei arreta eskaintzeaz gain, tresnak eman behar zitzaizkiela, hain zuzen ere, tarte bateko asaskaldiaz haratago irits zitezen, badakizue... Entzuleek, eskenatokia bere egin dezaten. Hauexek dira, argi eta garbi, proiektu eder baten oinarriak, garai ezin aldakorragootan aurrera doana, Inmertsioak bezalako ekitaldi gakoekin.

Ongi letorke egoera honi Joseph Beuysek eginiko proposamen hura, “gizon bat, artista bat” zioen leloa aplikatzea (gizon barik, gizakia askoz ere hobeto). Gune horizontalak sortu, hartu-eman zuzenekoak, non gaitasunak, adierazpen-borondateak eta artearekiko sentiberatasuna loratzen diren. Sarri askotan bere burua artista gisa ikusi ere ikusten ez duenak protagonismoa har dezala erraztu eta bideratu. Honen moduko zerbait gertatu zen Etxabarri-Dibiñako agroturismoko os tatu batean azaroaren hasieran burutu zen mintegian, bertan erein baitzen aurtengo Inmertsioen edizio honetarako gazte-talde ilusioz beteak erakusketa-lan gisa proposatuko zuena.

Inmertsioek itaun zuzen eta arteza egiten digute, inguruan dugun kultur bilbapena beste era batez ulertzeko xedeaz. Eta ezin daiteke ez entzutearena egin eta beste norabait begiratu, entzule-begiraleek jauzi egin eta eskenatokiaren erdian aktore eta kantore bihurtu direnean. Era berri hori hortxe dugu eta, nire ustez, geratzeko asmoz etorri da...

Lorena López de Lacalle Arizti

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru Diputatua

*“¡Ya es hora
de que el
público
participe!”*

(Joe Strummer, en un concierto, en 1976)

“Cada hombre, un artista” Joseph Beuys

Me alegró sobremanera saber que, Izaskun, una de los jóvenes artistas que había visto aquella fría mañana de diciembre en la Sala América presentar sus proyectos e inquietudes en el singularísimo foro que fue Inmersiones'08, se iba a encargar de comisariar la edición de 2009.

Pensé que el Proyecto Amarika Proiektua se retroalimentaba, daba un paso y eso le servía para dar el siguiente, y eso me gustó, me hizo pensar que todo lo que estábamos luchando desde el principio cobraba su sentido real y que estaba valiendo la pena.

Pensé también que ya era hora no sólo de prestar atención a quienes hasta la fecha se habían tenido que conformar con escuchar sin rechistar, sino que también había llegado el momento de dotarles de herramientas para que pudieran hacer algo más que desahogarse un ratito, ya sabéis... El público, tomando al asalto el escenario. Las bases, al fin y al cabo, de un hermoso proyecto, que sigue su camino en tiempos inciertos, con hitos del calibre de Inmersiones.

Bien podría traerse a colación aquella propuesta de Joseph Beuys, aquello de que “cada hombre es un artista” (cada persona, habría estado mucho mejor). Generación de espacios horizontales, de relación directa, donde afloren las capacidades, la voluntad expresiva y la sensibilidad artística. Vehiculizar la toma de protagonismo por parte de quien muchas veces ni siquiera se ve a sí mismo como artista. Algo de eso subyacía en el taller que se realizó en un agroturismo de Etxabarri-Viña a principios de noviembre, en el que se sembró el germen de lo que un grupo de jóvenes ilusionados iba a proponer como obra expositiva para la presente edición de Inmersiones. Inmersiones nos interpela directamente sobre lo que es otra forma de entender el entramado cultural en el que se asienta. Y no se puede ni se debe mirar hacia otro lado cuando el público da un salto y se incrusta como actor estelar en medio del escenario. Está ahí y creo que ha llegado para quedarse...

Lorena López de Lacalle Arizti

Diputada foral de Euskera, Cultura
y Deportes de la Diputación Foral de Álava

Posibilitateaz

Inmersiones 08 erabat hunkigarria izan zen, hala dut gogoan. Aurreko edizioan artista gisa hartu nuen parte eta hainbat gauza egiteko aukera izan nuen; beste kideen lanak ikusi, ideiak, proiektua, esperientziak... trukatu, etab. Zirrargarria izan zen eta energia asko sortu zuen nigan, egiten jarraitzeko gogo handia. Horregatik, Inmersiones 09ko komisario izatea erronka handia da. laz oso goian jarri zuten muga eta iazkoa hobetzea oso konplexua iruditzen zitzaidan.

Edizio berria nire artista eta diseinatzaile ikuspegitik sortzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen, hau da, diseinuaren testuingurutik ukitu bat eman mundu artistikoari eta alderantziz. Bi metodologia desberdin uztartu, proiektuak eta sareak ikuspegi aberatsagoarekin sortzeko, bietatik jasotakotik sortzeko.

Askotan ikusten dugu erakusketak egiten direla eta katalogoak editatzen direla. Horretarako ahalegin ekonomiko eta giza ahalegin handiak behar izaten dira, eta gai hauen guztien arazoa ondoren hedatzea da, proiektua jaioberritan hiltzen da. Inmersiones 09 honen ideia pertsona horien guztien lana zabaltzea da, hilabeteetan, eta kasu batzuetan urteetan, eratzen joan den lana zabaltzea.

Katalogo honetan Inmersiones 09an egindako jarduera guztiak daude, baina bere xede nagusia 30 artista hauen lana erakustea da eta hori guztia Espainiako Estatuan eta Portugalen zabaltzeko baliagarria izatea. 2010eko urtarrilean Inmersiones 09k bira bat egingo du eta horren bidez lanerako sareak sortu nahi ditugu, baita ideiak eta proiektuak trukatu ere. Edizio honetan parte hartu duzuen artista guztioi mila esker zuen begirada ekarri izanagatik.

Izaskun Álvarez Gainza

Inmesiones 09ko komisarioa

De la posibilidad

Inmersiones 08 lo recuerdo como algo realmente emocionante. Participé como artista en la edición pasada, en un foro donde pude ver el trabajo de otras/os compañeras/os, intercambiar ideas, proyectos, experiencias, etc... Fué algo emotivo que generó en mí mucha energía, muchas ganas de seguir haciendo. Es por ello que el comisariado de Inmersiones 09 se me presentó como un gran reto. El listón del año pasado estaba realmente alto y mejorar eso me parecía muy complejo.

Pensé que podría tener interés generar una nueva edición desde mi mirada como artista y diseñadora, es decir: aportando al mundo artístico una pincelada del contexto del diseño y viceversa. Poner en común dos metodologías distintas para generar proyectos y redes con una mirada enriquecida, que bebe de ambos.

Muchas veces vemos como se producen exposiciones, se editan catálogos, y se hacen grandes esfuerzos económicos y humanos para todo ello, y el problema de todas estas cuestiones es su posterior difusión, cuando el proyecto acaba de nacer, ya ha muerto. La idea de Inmersiones 09 es precisamente poder difundir el trabajo de todas estas personas, que se ha ido gestando durante meses, y en algunos casos, durante años.

Este catálogo reúne todas las actividades realizadas en Inmersiones 09, pero sobretodo se centra en mostrar el trabajo de estas/os 30 artistas y que sirva para poder difundir todo ello por el estado español y Portugal. En enero de 2010 se realiza el tour de Inmersiones 09, y con ello esperamos poder empezar a crear redes de trabajo e intercambio de ideas y proyectos.

A todas/os las/os artistas participantes en esta edición muchas gracias por aportarnos sus miradas.

Izaskun Álvarez Gainza

Comisaria de Inmesiones 09

Urtebete baino gehiago da

...bidaia hasi zela. Bidaia honetan Artista Erkidegoaren eta Erakundearen energiek bat egin zuten amets bera zutelako: artearen kultura kudeatzeko eredu berria. Zerikusia duten alde guztien lankidetzari esker sortu zen Amarika proiektu ezagun-aintzatetsia. Bidaia honetan artisten erkidegoak

de facto hartzen du parte hiriko kultur politiketan eta modu demokratikoan egin ere, kultur proiektuen kudeaketan paradigma berri bat sustatuaz. Eta bidaia honetan, beste askotan bezala, bidaiariak joan eta etorri egiten dira, aztarnak uzten dituzte, ibilbidea aberasten dute eta etengabeko eraikitze lanean ekarpenak egiten dituzte; bidaiak jarraitu ahal izateko freskotasuna, esperientzia eta memoria ekartzen dituzte.

Lehenengo zati hau gaindituta, horrek ematen duen konfiantzarekin, ibilbidea luzatzeko erronka sortzen da, esploratzeko asko baitago eta, azken finean, bidean mugarri berriak aurkitu behar baitira.

Eta filosofi horren aldeko apustua eginda sortu zen Inmersiones duela urtebete. Gure inguruko artearen sortzaile, artista eta kudeatzaile belaunaldi berrien proposamenak eta ekoizpen argitaragabeak ordenatzeko gailua. Ideiak eta esperientziak partekatuaz eta ikusgarri bihurtuaz arlo publikoaren babes erabakigarriarekin. Testuinguru honetan eta ezohiko moduan erakusketak egiteko espazioa artista erkidegoak topo egiteko erabili zen. Aurtengoan Inmersiones berriro interpretatu da proiektu gisa eta planteamendu paregabe batzuei esker egin da, txandakako kudeaketa eta jarrera parte hartzaileak sustatu dira, esaterako, bere ehun kognitiboaren birsorkuntza jarraituaren aldeko apustua egin da eta horren bidez gertuko beste kolektibo batzuekin loturak erraztu dira, beste modu batera ezinezkoa izango zen arren. Bere gizarte sareak zabaldu ditu.

Duela urtebete baino gehiago hasi zen partekatze, parte hartze, erkidegoa sortzeko eta, azken finean, talde bezala hazteko eta hobetzeko bidaia. Kontzeptu horiek kondentsa dezakete, kultur proposamenen formatu honek lortu nahi duena. Jarrai dezala bidaiak!

Ana Valdeolivas

Amarika Kontseiluko kidea

Hace más de un año

...que comenzó el viaje. Un viaje en el que las energías de la Comunidad Artística y de la Institución confluyeron en un deseo compartido, un nuevo modelo de gestión de la cultura del arte que gracias a la colaboración entre todas las partes implicadas cristalizó en el, cada vez más (re) conocido, proyecto Amarika. Un viaje donde esta vez el colectivo artístico participa, de facto, en las políticas culturales de la ciudad y lo hace de forma democrática promoviendo así un nuevo paradigma en la gestión de

proyectos culturales. Y en este viaje, como en otros muchos, los viajeros van y vienen, dejando huella, enriqueciendo el itinerario y aportando la permanente construcción; el aire fresco, la experiencia y la memoria para que el viaje pueda continuar.

Superado este primer trayecto, con la confianza que ello aporta, surge entonces el reto de prolongar el recorrido, porque queda mucho por explorar y porque, en definitiva, es necesario descubrir nuevos hitos en el camino.

Y apostando por esta filosofía, hace ya también un año, se gestó Inmersiones. Un dispositivo para testar propuestas y producciones inéditas de las nuevas generaciones de creadores, artistas y gestores del arte de nuestro entorno. Compartiendo ideas y experiencias y haciéndolas visibles con el apoyo decisivo de lo público. En este contexto y de forma inusual, se utilizó el espacio expositivo como lugar de encuentro para la comunidad artística. En la edición de este año, Inmersiones se ha reinterpretado como proyecto y lo ha hecho gracias a planteamientos únicos como la promoción de la gestión rotativa y de las actitudes participativas, apostando por una regeneración continuada de su propio tejido cognitivo y facilitando así vínculos con otros colectivos cercanos que de otra manera no hubieran sido posibles. Extendiendo sus propias redes sociales.

Hace más de un año que comenzó el viaje para compartir, participar, crear comunidad y, en definitiva, crecer y mejorar como colectivo, conceptos que pueden condensar lo que pretende conseguir este formato de propuesta cultural. ¡Que el viaje continúe!

Ana Valdeolivas

Miembro del Consejo Amarika

Txanda hartuz

Ez dago “Murgilketak” ulertzerik, azalean igeri geratzen bagara. Azalpean ibili behar da, barruan murgildu, ulertu ahal izateko hurbileko praktika artistikoen zabalkunderako tresna honen garrantzia eusten dion kudeaketa ereduan datzala: Amarika Proiektuan, hain zuzen ere. Tira dezagun haritik, bada: herritarren, artisten, kulturaz arduratzen diren pertsonen batzar ireki

batetik sortua da Amarika Proiektua. Batzarkideen arteko “kontraturik” gabeko batzarra bera, ez baitu oinarrian inolako “corpus” juridikorik -“elkarte”, “federazio” edo horrelakorik-. Eta hori, gutxienez ere, ezohikoa da.

Gizarte honetan dena dagoelako kontratuzko itunen mende. Harreman intimoak, emozionalak, bikote harremanak ere kontratu bati loturik daude. “Amarika Batzarraren” eredu irekiak, aldiz, “paperik gabeko” bikote harremanen antz handiagoa du, eta ibili badabil. Hori bai: oso helburu argiak behar dira, agian, zerbaitek legezko lokarririk gabe funtziona dezan. Baina dena ez da elkar hartze gozoa, badira eragozpenak ere: zaila da pertsona desberdinen artean irizpideak adostea.

Hala ere “Amarika” aurrera doa, duela urtebete baino lehenagotik ari baita programatzen Arabako Foru Aldundiaren hiru erakusketa aretotan. “Murgilketak 09” proiektuak ere frogatu du bere filosofiak -jada aurreko edizioan nabarmendua- ondo funtzionatzen duela. Gaur egun koordinatzaile diharduen pertsona lehenengo deialditik “azaleratu” baita: “Murgilketak 08” edizioan aukeratutako pertsonetariko bat da. Eta datorren urtean ere eutsiko ahal zaio errelebo horri. Diru publikoarekin ordaintzen diren kultur ekintzen kudeaketan areagotu egin behar direlako parte hartzea, irekitasuna, iragazkortasuna. Beste kudeaketa modu bat posible dela erakutsi behar da. Argi utzi behar da “herritarren parte hartzea” eta “herritarren kudeaketa” sinonimoak direla. “Parte hartzea”, “sareko lana”, “arte gainerakorra” ez direla hitz hutsak, jarduketa ildo publiko bat edo bestea justifikatzeko aitzakiak. Esanahiz bete behar dira berriro. Eta “Murgilketak” horretarako balio duen tresna da.

Iñaki Larrimbe

Murgilketak 08ko komisarioa

Amarika batzarreko kidea

Relevo

No se puede entender “Inmersiones” si nos quedamos nadando en su superficie. Hay que bucear, sumergirse, para poder comprender que la importancia de este dispositivo de difusión de las prácticas artísticas cercanas estriba, fundamentalmente, en el modelo de gestión que lo sustenta: el Proyecto Amárica. Y tiremos del hilo: el Proyecto Amarika

surge a su vez de una asamblea abierta de ciudadanos, artistas, personas preocupadas por la cultura. Una asamblea sin “contrato” entre asamblearios, pues no hay un “corpus” jurídico -llámese “asociación”, “federación”....- que lo sustente. Y eso es, cuando menos, infrecuente.

Porque en esta sociedad todo está sujeto a tratos contractuales. Incluso las relaciones íntimas, emocionales, de pareja, están sujetas a contrato. Pero el modelo abierto de la “Asamblea Amarika”, más similar a las relaciones de pareja “sin papeles”, funciona. Eso sí: los objetivos, quizá tengan que ser muy claros para que algo funcione sin ataduras legales. Aunque no todo es “contigo pan y cebolla”, porque también existen dificultades: es difícil consensuar criterios entre personas de diversa índole.

Pero “Amarika” marcha, pues actualmente se está programando desde hace más de un año en tres salas expositivas de la Diputación Foral de Álava. “Inmersiones 09” ha demostrado también que su filosofía -ya marcada en su anterior edición- funciona. Porque la actual persona coordinadora del dispositivo ha “emergido” de la primera convocatoria: ella era una de las personas seleccionadas en “Inmersiones 08”. Y esperemos que el año próximo se mantenga este relevo. Pues las gestiones de actuaciones culturales costeadas con dinero público tienen que ser más participativas, abiertas, permeables. Hay que demostrar que es posible gestionar de otra manera. Hay que dejar claro que “participación ciudadana” es sinónimo de “gestión ciudadana”. Que “participación”, “trabajo en red”, “arte emergente” no son sólo meras palabras, coartadas para justificar tal o cual línea de actuación pública. Hay que llenarlas de nuevo de sentido. E “Inmersiones” es una herramienta que sirve para ello.

Iñaki Larrimbe

Comisario de Inmersiones 08

Miembro de la asamblea Amarika

Izan, esan, egin

“Hau artelana da” eta “artista naiz”. Lehen adierazpenetik ondorioztatzen da objektu batek, artelana izateko, horrela izendatuko duen subjektu baten beharra duela. Bigarrenetik, lehenengo eta behin subjektuak berak baieztatu behar duela bere artista izaera.

Bi baieztapen ontologiko horiek bi ezintasun dakarte berekin (eta mendekotasun bana). Hala, egia da objektu bat ez dela gai bere artistikotasuna baieztatzeke, baina nahikoa da subjektu batek hori egitea, objektua “diren artelan guztien” unibertso eztaba daezinean sar dadin. Hortxe amaituko du objektu estetiko nagiak baliodun bihurtzeko bidea.

“Artista naiz” esateak, berriz, amaiera eman orde, hasiera ematen dio ibilbide luze, ilun eta zenbaitetan oinazetsuari. Bide horretan abiatzen den subjektuak badaki zerbait falta zaiola. Zer da “artista naiz” lehenengo aldiz dioenak “izatera” iristeko premiazkoa duen hori? Testuingurua da. Horrexek bakarrik sendotu ahalko du hasierako baieztapen ekintza.

Beharbada subjektua oker ibiliko da, pentsatuz ezinbesteko testuinguru hori arte erakundea dela (alegia, hezkuntza establezimenduek, gune publiko, pribatu eta autokudeatuek, beka eta sarien sistemek, merkataritza galeriek eta prentsa espezializatuak osaturiko bilbea), eta artista bihurtzeko nahikoa duela kidetasunekin eta talde interesekin ehundutako eszena artistiko batean parte hartzea, produkzio sistema bateko partaide izatea (artearena bezalako sistema ezegonkor eta disfuntzionala bada ere) eta gizartean izen ona lortzea.

Non txertatu emango dion gizarte errealitaterik gabe, ez dago ez arterik ez artistarik, egia da. Ez da hori, ordea, artistak behar duen lehen testuingurua. Ezinbesteko espazio hori inork ez dio emango, berak eraiki beharko du bakarka, eta egiten duenarekiko erantzukizuna hartu beharko du horretarako. Gero, “artista naiz” esan ondoren badu zereginik: erabaki, asmatu, erratu, zalantza egin; aurrera begiratu, atzera begiratu, berriro so egin, bere buruari begira geratu; egitea erabaki, ez egitea erabaki.

Miren Jaio

Arte kritikaria

Ser, decir, hacer

“Esto es una obra de arte” y “soy artista”. De la primera enunciación se deriva que un objeto precisa para ser una obra de arte de un sujeto que lo cualifique. De la segunda, que la primera afirmación de la cualidad de artista de un sujeto habrá de provenir de él mismo.

Estas dos afirmaciones ontológicas llevan aparejadas dos incapacidades (y sendas dependencias). Así, si bien es cierto que un objeto no es capaz por sí

mismo de afirmar su cualidad artística, basta con que un sujeto lo haga para que ese objeto pase a formar parte del universo incontestable de “todas las obras de arte que son”. Ahí terminará el camino hacia su validación del indolente objeto estético.

Por su lado, el “soy artista” no cierra, sino que marca el inicio de un camino de largo, incierto y, en ocasiones, doloroso recorrido. Un camino que el sujeto inicia consciente de adolecer de una carencia. ¿Qué es aquello que quien dice por primera vez “soy artista” necesita de manera apremiante para llegar a “ser”? Un contexto. Sólo éste será capaz de refrendar ese acto primero de afirmación.

Tal vez el sujeto incurra en el error de pensar que ese contexto indispensable lo conforma la institución-arte (el entramado compuesto por establecimientos educativos, espacios públicos, privados y auto-gestionados, sistemas de becas y premios, galerías comerciales y prensa especializada), que para convertirse en artista es suficiente con pertenecer a una escena artística tejida a partir de afinidades e intereses comunes, formar parte de un sistema de producción (si bien precario y disfuncional como el del arte) y lograr un reconocimiento social.

Es cierto que no hay arte ni artistas sin una realidad social en la que insertarse. No es ése, sin embargo, el contexto primero que necesita el artista. Ese espacio indispensable no le vendrá dado, deberá construirlo al margen de todo e implicará asumir una responsabilidad con respecto de la propia práctica. Después, tras el decir de “soy artista”, vendrá el hacer: decidir, acertar, errar, dudar; mirar hacia delante, mirar hacia atrás, volver a mirar, parar a mirarse; decidir hacer, decidir no hacer.

Miren Jaio

Crítica de arte

Proiectua *Proyecto*

Proyecto Proiektua

Inmersiones 09

Katalogo honetan aurkezten den Inmersiones 09 Vitoria-Gasteizen 2009ko azaroan eta abenduan gertatutako jardueren bilduma da. Edizio honek 3 zati ditu (elkarbitzita tailerra, aurkezpen birarako 30 artista eta dosierrak aukeratzea).

Inmersiones 09ko lehenengo jarduera asteburu tailerrarekin hasi zen, jarduera horretarako 10 artista eta Lur Paisajistas (Juan Iriarte eta Iñigo Segurola) aukeratu ziren. Asteburua azaroaren 6, 7 eta 8koa izan zen eta asteburu/tailer horren emaitza Amerika Aretoan erakusgai egon da Inmersiones 09ren aldi osoan.

Deialdiaren beste zati batean 30 artista/proiektu aukeratu dira. Hauen lanak azaroaren 21etik 28ra aurkeztu dira 11etatik 14etara Amerika Aretoan. Ondoren, 30 artista/proiektu hauek Estatuan eta Portugalen zabalduko ditugu 2010eko urtarrilean egingo dugun biran.

Katalogoan 30 artista horien lana laburtu nahi izan dugu, komisarioen eta kultur eragileen arreta berehala berenganatzeko eta etorkizunean elkarlanean aritu ahal izateko. Bira 30 proiektu horiek zabaltzen saiatuko da eta horien ordezkari izango da Inmersiones 09 taldea Birak irauten duen bitartean.

Inmersiones 09 deialdiko azken atala txostenei dagokie. 45 txosten aukeratu dira aretoan kontsultatu ahal izateko eta aretoan bertan Amerika Proiektuak duen agiritegirako.

Abenduaren 11, 12 eta 13an Martín Azúa izan dugu Amerika Aretoan tailer bat ematen.

“Airezko mezuak” da tailerraren izenburua eta airez puztutako bolumenak (Koinoboriak) landu dira; ondoren, partaideek Legution zintzilikatu dituzte bolumen horiek.

Inmersiones 09ko amaierako puntu edo abiapuntu gisa azkeneko eguna 2010eko urtarrilaren 15a izango da. Egun horretan aurkeztuko da katalogo hau, eta orduan hasiko da Inmersiones 09 bira ere. Egun horretarako kultur proiektu independenteen testa egin nahi genuen eta jendea indarberritu nahi genuen jada badabiltzan gauzeekin eta nork bere burua ekoiztera sustatu denak.

Horretarako, beraien zeregin artistikoa (edo arteari dagokiona) erakusteko, honakoak gonbidatu ditugu: Madrilgo Espacio Menosuno, Proyecto Amarika Proiektua, Manuela Villa (Matadero) eta Art and Project (Iparraldea).

Inmersiones 09

Inmersiones 09 se presenta en este catálogo como compilación de actividades que han ocurrido a lo largo del mes de noviembre y diciembre de 2009 en Vitoria-Gasteiz. Esta edición consta de 3 partes diferenciables (La convivencia-taller, 30 artistas para presentaciones-tour y la selección de dossiers).

La primera actividad de Inmersiones 09 comienza con el fin de semana taller, en el que se seleccionaron 10 artistas que junto a Lur Paisajistask (Juan Iriarte e Iñigo Segurota). Este fin de semana es el 6, 7 y 8 de noviembre y el resultado de ese fin de semana-taller se ha expuesto en la Sala América durante todo el período de Inmersiones 09.

Otra de las partes de la convocatoria ha sido la selección de 30 artistas/proyectos. Estos han presentado sus trabajos durante las jornadas del 21 y 28 de noviembre en horario de 11 a 14h en la Sala América. Y después estos 30 artistas/proyectos vamos a difundirlos por el Estado y Portugal mediante un Tour a lo largo del mes de enero de 2010.

En el catálogo hemos querido sintetizar el trabajo de estos 30 artistas para poder así captar rápidamente la atención de comisarias/os, agentes culturales para posibles futuras colaboraciones. El tour tratará pues de difundir esos 30 proyectos a los que el equipo de Inmersiones 09 va a representar lo que dure el Tour.

El último de los apartados de la convocatoria de Inmersiones 09 es la de los dossiers. Se han seleccionado 45 dossiers para poder consultarlos en sala y para el archivo que el Proyecto América tiene en la sala.

El 11, 12 y 13 de diciembre también hemos podido contar con la presencia de Martín Azúa para un taller que ha impartido en la Sala América.

“Mensajes de aire” es el título del taller, en el que se ha trabajado con volúmenes inflados por el aire (o Koinoboris) que después los participantes colgaron por Legutiano.

Como punto final o punto de partida de Inmersiones 09 la última fecha es el 15 de enero de 2010. Día en el que se presenta este catálogo, y donde se da comienzo a lo que será el tour de Inmersiones 09. Para este día queríamos hacer un testeo de los proyectos culturales independientes, y queríamos poner las pilas a la gente con cosas que ya están funcionando y animar así a todas/os a autoproducirse.

Para ello hemos invitado a Espacio Menosuno de Madrid, al Proyecto Amarika Proiektua, A Manuela Villa (Matadero) y a Art and Project (Iparralde) para que nos muestren su quéhacer artístico. (o respecto del arte).

*Azaroaren 20tik
urtarrilaren 20ra arte
Del 20 de Noviembre
al 20 de Enero*

Komisarioa / Comisaria:

Izaskun Álvarez Gainza

Ekoizlea / Producent:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alarra.net

Proyecto AmariKa Proiektua

Egutegia/Calendario

Azaroak 20
Inmersiones 09ren
inaugurazioa

20 de Noviembre
Inauguración de
Inmersiones 09

Azaroak 21
Lehenengo 15
aurkezpenak

21 de Noviembre
Primeras 15
presentaciones

2009

Azaroak 6, 7 eta 8.
Asteburuko tailerra Lur
Paisajistekin.

6, 7 y 8 de noviembre
Taller de fin de semana
con Lur Paiajistak.

Azaroak 28,
Azkeneko 15
aurkezpenak

28 de noviembre
Últimas 15
presentaciones


**Urtarrilak 15,
Katalogoaren aurkezpena
eta kultur proiektu
independenteak.**

15 de enero
Presentación del catálogo
y proyectos culturales
independientes.

2010

**Abenduak
11, 12 eta 13
Martín Azúarekin tailerra**

11, 12 y 13
de diciembre
Taller con Martín Azúa





*América aretoan
erakusketa*

*Exposición en
sala América*



Lan sareen sorrera

*Generación
de redes de trabajo*



*Artista hasi
berrien difusioa*

*Difusión de
artistas emergentes*

*Azaroaren 20tik
urtarrilaren 20ra arte
Del 20 de Noviembre
al 20 de Enero*

Konkurtak *Exposizioak*
Lehen eta Bigarren Saria

Ekitaldiak *Exposizioak*

 *Basque Government*
Basque Government

Basque Government





inmersiones 09



América aretoa ez da erakusketa areto gisa erabiltzen bakarrik, kasu batzuetan, arte erkidegoarentzako topagune bezala erabiltzen da baita. Inmersiones 09-n erakusketaz gain, dosierrak eta zuzeneko aurkezpenak; azaroaren 21an bazkari herrikoi bat antolatu zen, non proiektu, ideia eta komunikazio-sareak egiteko gogoak elkar aldatu ziren. Honetarako, Diocesanas-Mendizorrotza Osteleritza Eskolagatik apustu egin zen, sukaldari berriak prestatzen baiditu.

La sala América no solo se utiliza como espacio expositivo, en algunos casos, se utiliza como lugar de encuentro para la comunidad artística.

En Inmersiones 09 además de la exposición, los dosieres y las presentaciones en directo; el 21 de noviembre se organizó una comida popular donde se intercambiaron proyectos, ideas y ganas de generar redes de comunicación. Para esta ocasión se apostó por la Escuela de Hostelería Diocesanas-Mendizorrotza que forma a emergentes de la restauración.

20tik
20ra arte
20 de Noviembre
al 20 de Enero

Komisarioa / Komisaria:

Isakun Alvarez Garza

Ekoizlea / Produzlea:



Proiektu Antolatzailea
Gazteak eta Kulturaren Departamentua

Proiektu Antolatzailea







Tailerra Taller

მრეწველთა კლუბი

Asteburuko Tailerra

Murgilketak 09ko lehenengo jarduera asteburuko tailerra izan da. Bertan 10 artista aukeratu dira, Lur Paisajistak taldearekin (Juan Iriarte eta Iñigo Segurola). Asteburu hori azaroaren 6an, 7an eta 8an izan da eta asteburu horretako tailerraren emaitza Amerika aretoan egon da ikusgai Murgilketak 09k iraun duen bitarte osoan.

Paisajismoko goi mailako ikasketak Edinburgon egin ondoren, Iñigo Segurolak Juan Iriarterekin batera paisajismoko estudio bat sortu zuen 1992an, LUR Paisajistak izenekoa. Urte hauetan egindako lanak hainbat tamainatako proiektu publikoak eta lorategi pribatu eta korporatiboen proiektuak biltzen ditu. Euskadi da lan eremua, eta lan gehienak Donostia inguruan kokatzen dira. Paisaia proiektu bakoitzak berekin dakartzan helburu sozialak, ekologikoak eta estetikoak lantzen ditugu gure estudioan, apustu garbia eginez paisaia eredu iraunkorren alde. Paisajistak garen aldetik uste dugu landare elementua dela gure proiektuak sortzeko osagai nagusia. Landaketa eskema librean, irudi basatiaren eta adierazkortasunik handienaren aldeko apustua egiten dugu. Ekologiaren kulturizaziora jotzen dugu. Sakonean aztertzen dugu nola inguratu diseinu eredu sendo eta zehatzekin estetika basatia, babestu eta sustatu beharreko edozein prozesu ekologikok berezkoa duen estetika, alegia.

Gure estudioak egindako lan publikoen artean azpimarratzekoak dira Ametzagainekeo hiri inguruko parkea (40 hektarea), Oroimenaren Lorategia (4 hektarea), hiru plaza Loiolako Erriberetan, Katalunia plaza, Cervantes plaza eta Alai-Txoko parkea. Parkeen proiektuak egiteaz gainera, LUR Paisajistak taldeko kideok irakaskuntzan dihardugu Irungo Kunsthal eskolan eta tailerrak eta hitzaldiak ematen ditugu Espainian zehar. LUR Paisajistak estudioa Oiartzungo (Gipuzkoa) baserri batean dago,

basoz inguratutako haran itxi batean. Inguruko paisaiarekin bat egiten duen lorategi esperimental bat sortu da toki horretan, proiektatzen diren landaredi eskemekin saiakuntzak egiteko eta, horretara, izaera librea eta estetika basatia duten landaredi eredu berrien ezarpen prozesu konplexuak ulertzea lortzeko.

HIRUGARREN PAISAIARI MARKOA JARTZEA

Gilles Clément paisajista frantziarrak sortu du Hirugarren Paisaiaren kontzeptua. Lorategi Mugikorrari eta Lorategi Planetarioari buruz teorizatu ondoren, Hirugarren Paisaia honela definitu du: gizakiaren ekintza zuzen eta kontrolatzailearen eraginpean ez dauden espazioak. Beraz, Hirugarren Paisaia horretan aurkituko dira biziaren eboluzio aske eta aukeraz betearen oinarriak.

Lorategi planetarioaren puska zalantzati bat da Hirugarren Paisaia, zeinean gizakiak bertan behera utzi baitu lur eremu bat, paisaia horren eboluzioa naturaren beraren esku utziz, hiri edo landa inguru abandonatuetan, trantsizio aldeetan, nekazaritzarako balio urria duten aldeetan, baina baita bide, trenbide eta ibaietako ertz eta ezpondetan ere.

Nekazaritzak, basogintzak edo askotariko giza jarduerak hartu dituzte lurralde gehiena eta horrelako tokietan dibertsitate biologikorako aukera gutxi dago. Hirugarren paisaia, aldiz, dibertsitateari aterpea emateko espazio aparta da. Horrela ikusita, hirugarren paisaia planetako erreserba genetikoa da, etorkizuneko espazioa.

Beharrezkoa da, hortaz, hirugarren paisaiari eta bere dibertsitate biologikoari erreparatzea, izaki bizidunen etorkizuna baldintzatzen baitu. Orain arte espazio horiek lur alferrak izan dira, baliorik gabekoak, baina gaur egun babestu eta ulertu egin behar ditugu. Mantendu gabeko espazioaren kontzeptua sartu behar da, hirugarren paisaiak aukeraz betetako espazio gisa ager daitezela sustatuz.

Premisa horietatik abiatuta, tailerraren helburua da murgilaldi bat egitea Hirugarren Paisaian, hura identifikatuz eta markoa jarriz.

Paisaiari so egiten diogu itxuraz gizakiek ustiatzeko balio ez duten eremu antzu horiek bilatu eta identifikatzeko, hainbat izaki bizidunen babesleku baitira hala ere.

Behin hirugarren paisaia horiek identifikatutakoan Behitegi inguruan, gogoeta prozesua hasten da; nola jardun hirugarren paisaia horietan, ekintza artistiko baten bitartez espazio horiei markoa jartzeko, berezkoak dituzten dinamismoa eta askatasuna hondatu gabe, baina, aldi berean, agerian utziz espazio horietan badagoela barru-barruko balio bat gizakiaren ohiko begiradatik ezkutuan.



Fin de semana Taller

La primera actividad de Inmersiones 09 comienza con el fin de semana taller, en el que se seleccionaron 10 artistas que junto a Lur Paisajistak (Juan Iriarte e Iñigo Segurota). Este fin de semana es el 6, 7 y 8 de noviembre y el resultado de ese fin de semana-taller se ha expuesto en la Sala América durante todo el período de Inmersiones 09.

Tras cursar estudios superiores de Paisajismo en Edimburgo, Iñigo Segurota junto con Juan Iriarte crean en 1992 el estudio de paisajismo LUR Paisajistak. La línea de trabajo seguido durante estos años abarca proyectos públicos de diferentes escalas y proyectos de jardines privados y corporativos. El ámbito de trabajo se centra en Euskadi, concentrando la mayoría de los trabajos en el entorno de Donostia. En nuestro estudio trabajamos los objetivos sociales, ecológicos y estéticos implícitos en cada proyecto de paisaje, con una apuesta clara hacia modelos paisajísticos sostenibles. Como paisajistas creemos que el elemento vegetal es el componente clave para la concepción de nuestros proyectos apostando por esquemas de plantación de carácter libre, imagen salvaje y máxima expresividad. Nuestra apuesta es hacia la culturización de la ecología, ahondando en como enmarcar con modelos de diseño contundentes y definidos la estética asilvestrada implícita en cualquier proceso ecológico a preservar y potenciar.

Entre los trabajos públicos desarrollados por nuestro estudio destacan el parque periurbano de Ametzagaina de 40 Has, el Jardín de la Memoria de 4 Has., tres plazas en Riberas de Loyola, la Plaza Cataluña, la Plaza Cervantes y el Parque Alai-Txoko. Además del desarrollo de proyectos de parques, la actividad de LUR Paisajistak se complementa con la docencia en la escuela Kunsthall de Irun e impartiendo talleres y conferencias por toda España.

El estudio de LUR Paisajistak está ubicado en un caserío de Oiartzun (Gipuzkoa) en un valle cerrado rodeado de bosques. En este espacio se ha creado un jardín experimental que se funde con el paisaje colindante y que sirve como lugar de experimentación de los esquemas de vegetación proyectados logrando entender los complejos procesos de implantación de nuevos modelos vegetales de carácter libre y estética silvestre.

ENMARCAR EL TERCER PAISAJE

El Tercer Paisaje es un concepto del paisajista francés Gilles Clément, el cual tras teorizar sobre el Jardín en Movimiento y el Jardín Planetario, define el Tercer Paisaje como aquellos espacios que no están sometidos a la acción directa y controladora humana, y por tanto es en el Tercer Paisaje donde se dan las bases para que la vida evolucione libre y llena de oportunidades.

El Tercer Paisaje se trata de un fragmento indeciso del jardín planetario, donde el ser humano abandona un espacio de tierra dejando la evolución de ese paisaje a la propia naturaleza, en zonas abandonadas urbanas o rurales, espacios de transición, zonas de bajo valor agronómico, pero también los bordes de los caminos, las vías férreas, ríos y taludes.

La mayoría del territorio lo ocupa la agricultura, la silvicultura o la amplia actividad humana y en éstos lugares hay pocas opciones para la diversidad biológica. Sin embargo, el tercer paisaje es un espacio privilegiado para acoger la diversidad. Visto de este modo, el tercer paisaje aparece como la reserva genética del planeta, como el espacio del futuro.

Es por tanto necesario ser consciente de este tercer paisaje con su diversidad biológica ya que condiciona el futuro de los seres vivos.

Hasta la fecha estos espacios han sido considerados baldíos, carentes de valor, pero hoy en día deben ser protegidos y entendidos. Es necesario introducir el concepto de espacio no mantenido, provocando la aparición de

los terceros paisajes como espacios de oportunidad.

Partiendo de estas premisas, el objetivo del taller reside en realizar una inmersión en el Tercer Paisaje, identificándolo y enmarcándolo.

Miramos al paisaje con el fin de localizar e identificar estos espacios baldíos, sin valor aparente para la explotación humana, pero que sin embargo son refugios para un gran número de seres vivos.

Una vez identificados estos terceros paisajes en las inmediaciones de Behitegi se abre el proceso de reflexión de como poder actuar en estos terceros paisajes para que desde una acción artística éstos queden enmarcados de forma que no se altere el dinamismo y libertad propia de estos espacios, pero que sin embargo quede en evidencia que en esos espacios existe un valor intrínseco oculto a la mirada humana convencional.





Asteburuko tailerrean parte hartu zuten artistak hauek izan ziren:

Las/os artistas participantes en el fin de semana taller fueron las/os siguientes:

Edu Hurtado
 Estitxu Losa
 Ianire Sagasti
 Iker Serrano
 Iosu Zapata

Manu Uranga
 Miriam Isasi
 Sara Morante
 Ula Iruretagoiena
 Verónica Eguaras







45 Dossier *45 Dossieres*

45 Dossieres 45 Dossier

45 Dossieres

Aukeratutako dossier hauek argi uzten dute gaur egun Euskal Herriko probintzietan mota ugari lanak aurki ditzakegula. Hasi ilustraziotik eta dantzara artekoak, performancea, argazkia, pintura, ekintza, eskultura, elkarreragileak, etab. Edizio honetan Amari Aretoko erakusketa espazioan artista hauen 45 dossier kontsulta daitezke:

Esta selección de dossiers da cuenta de la diversidad de trabajos que podemos encontrar a lo largo de las distintas provincias del País Vasco en este momento. Desde ilustración, hasta danza, performance, fotografía, pintura, acción, escultura, interactivos, etc... En esta edición contamos en el espacio expositivo de la Sala América una selección de 45 dossiers consultables de los siguientes artistas:

Alfredo Zubiaur
Amaia Gracia + Ines Bermejo
Anamnese
Artlk[Lab] Jaime De Los Rios + André Koenig
Asier Bejarano
Beñat Villanueva
Cuantics Creatives - Diego Soroa
Edu Hurtado
Eduardo González
Elisa Fernández
Elisabet Hernández
Elisabeth Varona
Erika Yurre
Estitxu Losa
Fermin Diez Ulzurrun
Garbiñe Arroyuelo
Gregorio Sanchez
Hector Orruño
Ibai León
Iker Azurmendi
Iker Serrano + Amaia Alonso
Iñigo Beristain
Iosu Zapata

Ivan Mata
Javi Kintana
Jenni Alvarado
Josean Pablos
Julen Cano
Laura Díez
Laurita Siles
Leire Iparraguirre
Manu Uranga
María Jiménez
Marian Unamuno
Mikel Belacortu
Nerea De Diego
Pernan Goñi
Rauda Quebrada
Ruben Díaz De Corcuera
Sara Campillo
Sara Morante
Ula Iruretagoiena
Unai Requejo
Usue Arrieta + Vicente Vazquez
Verónica Egúaraz





30 Proiektu 30 Proyectos

30 Projects 30 Projekti

30 Proiektu

Deialdiaren beste atal bat, 30 artista/ proiektuen hautaketa izan da. Lan hauek Azaroak 21 eta 28an aurkeztu ziren, goizeko 11etatik 14tara, Amerika aretoan. Gero, urtarrilean burutuko den tour baten bitartez, artista hauek guztiak Estatu mailan eta Portugalen zabalduko ditugu, Komisarioen eta agente kulturalen arreta ahalik eta azkarren lortzeko, 30 artista hauen lanak katalogoan laburbildu ditugu. Tourrak, beraz, 30 proiektuak aurkeztea du helburu, Inmersiones 09 taldea dutela ordezkari.



30 Proyectos

